BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

3779

AGINDUA, 2014ko uztailaren 30ekoa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena. Honen bidez, hiri-ingurunean zein eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza-obrak egiteko eta irisgarritasun-planak egin eta eguneratzeko udalentzako, toki-erakunde txikientzako eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuentzako diru-laguntzak arautzen dira, eta horietarako 2014ko ekitaldirako deialdia egiten da.

Irisgarritasuna sustatzen duen abenduaren 4ko 20/1997 Legeak ezarri du, dagoeneko titularitate, erabilera edo zerbitzu publikoetakoak diren hiri-inguruneetako, espazio publikoetako, eraikinetako, garraioetako eta informazio-sistemetako irisgarritasuna bermatzeko eta sustatzeko tresna gisa Udalek eta Toki Erakunde Txikiek, beste hainbaten artean, lau urterako programak egin behar dituztela. Programen helburua elementu horiek legean eta bere garapen-arauetan aurreikusitako irisgarritasun-baldintzetara egokitzea da.

Aipatutako legean adierazten da, halaber, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek irisgarritasuna sustatzeko behar diren sustapen-neurriak hartzea bultzatuko dutela. Diruz laguntzeko moduko programetan, lehentasuneko jardun gisa ezarriko da hiri-inguruneak, espazio publikoak, eraikinak, garraiobideak eta komunikazio-sistemak irisgarritasun-baldintzetara egokitzeko obrak finantzatzea.

20/1997 Legean ezarritako helburuetako bat ingurunea antolatzea da, herritar oro berdin eta ahal denik eta independenteen moldatu dadin, pertsonen beharrak instalazioetan integratuta, guzti-guztiek normaltasunez erabil ditzaten, hori baita Europako irisgarritasun-kontzeptuan bilduta diseinu unibertsalaren oinarria.

Hori dela-eta, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak beharrezko jotzen du laguntza-lerro bat ezartzea udalentzat, toki erakunde txikientzat eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuentzat, lehenago adierazitako programak prestatzea eta eguneratzea sustatzeko.

Agindu honek Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2013ko uztailaren 31ko Agindua ordezten du, zeina 2013ko irailaren 10eko EHan, 172 zenbakikoan, argitaratu baitzen. Agindu horrek irisgarritasun-planak egiteko eta eguneratzeko, hobekuntza-obrak burutzeko eta hiri-ingurunean zein eraikinetan irisgarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren ekipamenduak erosteko udalentzako, toki-erakunde txikientzako eta xede sozialak dituzten onura publikoko erakunde pribatuentzako diru-laguntzetarako deialdia egiten zuen, eta horiek emateko modua arautzen zuen; horrez gain, diru-laguntzen eskabidea noiz eta non aurkeztu behar zen ere zehazten zuen.

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea 2014ko deialdia egitea eta erregimena arautzea da, honako helburu hauek dituzten diru-laguntzak emateko: 1) Irisgarritasun-planak egin eta eguneratzea, hiri-inguruneak, espazio publikoak, eraikinak, garraiobideak eta komunikazio-sistemak pixkanaka egokitzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean eta haren garapen-arauetan aurreikusitako irisgarritasun-baldintzetara; 2) Udalen eta toki erakunde txikien irisgarritasun-planetan jasotako hobekuntza-lanak egitea Euskal Autonomia Erkidegoko hiri-ingurunean eta eraikinetan irisgarritasuna bermatzeko,

eta, xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuen kasuan, hobekuntza-lanak egitea; eta 3) Igogailu eta jasogailuak erosi eta instalatzea Euskal Autonomia Erkidegoko hiri-ingurunean eta eraikinetan irisgarritasuna bermatzeko, betiere udalen eta toki erakunde txikien irisgarritasun-planetan jasotakoaren arabera.

2. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Diru-laguntza hauek jasotzeko aukera izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko udalek, toki erakunde txikiek eta xede sozial nabaria duten onura publikoko erakunde pribatuek, betiere aurreko artikuluan zehaztutako jardunak burutzea eta garatzea baldin badute helburu. Toki erakunde autonomoek ere eska ditzakete diru-laguntza horiek.

Orobat, agindu honetan araututako laguntzak eman, eta, hala behar badu, ordaindu ahal izateko, amaituta egon beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi diren itzultze- edo zehapen-prozedura guztiek, prozedura horiek oraindik izapidetze-aldian badaude, behintzat.

Sexu-bereizkeria dela-eta bazterkeria egiteagatik administrazio- edo zigor-zehapena jaso duten pertsona fisiko edo juridikoek ezin izango dute deialdi honetan parte hartu, zigorrak ezartzen duen epean. Ezin izango dute parte hartu, orobat, Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen Azken Xedapenetatik seigarrenean xedatutakoari jarraiki debeku horrekin zehatutakoek.

Alde horretatik, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, eskabide-ereduari jarraituz.

3. artikulua.– Eskaerak aurkezteko tokia eta epea.

Erakunde onuradun bakoitzak eskabide bat aurkeztu behar du jardun bakoitzeko.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Etxebizitza Zuzendaritzara bidali beharko dira eskaerak (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz). Sail horren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarri diren bideetarik edozein erabili ahal izango da eskaerak aurkezteko. Eskabide-eredua agindu honen eranskinean ageri da, bai eta jardunaren datuak emateko eredua ere.

Eskaerak aurkezteko, halaber, bitarteko elektronikoak ere erabili ahal izango dira, euskadi.net-en egoitza elektroniko honetan:

https://euskadi.net/ayuda_subvencion/-/2014/irisgarritasuna/

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Eskabidea izapidetzeko eta agiriak aurkezteko bide bat edo bestea erabiltzeak ez du behartzen aurrerantzean ere prozedurako gainerako izapideak egiteko bide bera erabiltzera, eta edozein momentutan alda daiteke aukeratutako bidea.

Eskaeraren ondorengo izapideak, bide elektroniko bidez egin nahi badira, euskadi.net/Nire kudeaketak atalaren bidez egingo dira.

4. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Agindu honen arabera emandako diru-laguntzen kudeaketa-lanak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Etxebizitza Zuzendaritzak egin behar ditu.

5. artikulua.– Aurkeztutako eskabideko hutsak zuzentzea.

Aurkeztutako eskaeran akatsen edo hutsegiteren bat dagoela atzematen badu Etxebizitza Zuzendaritzak, eskatzaileari jakinaraziko dio eta hamar eguneko epea emango dio arazoa konpontzeko; Hala egin ezean, eta 30/1992 Legearen 42. artikuluan ezarritakoaren araberako ebazpena eman ondoren, bere eskaeran atzera egin duela joko da (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

6. artikulua.– Balorazio-epaimahaia.

1.– Aurkeztutako eskabideak aztertzeko eta egiaztatzeko, ondoko pertsona hauek osatuko duten balorazio-epaimahai bat eratuko da:

– Etxebizitzako zuzendaria (edo Etxebizitzako sailburuordeak izendatutako ordezkoa); batzordeburu jardungo du.

– Proiektu, Obra eta Gainbegiratze Zerbitzuko burua (edo Etxebizitzako sailburuordeak izendatutako ordezkoa).

– Horretarako izendatutako Etxebizitza Zuzendaritzako teknikaria (edo bera ordezten duen pertsona, Etxebizitzako sailburuordeak izendatua), zeina idazkari gisa jardungo baitu.

2.– Epaimahaiak dagokion ebazpen-proposamena igorriko dio Etxebizitzako sailburuordeari, Agindu honen 20.2 artikuluaren arabera eskaera bakoitza aztertu eta egiaztatu ondoren.

7. artikulua.– Eskatutako irisgarritasun-aurrekontua.

1.– Eskatutako irisgarritasun-aurrekontutzat hartuko da egokitzapen ekipamendurako aurkeztutako plan-, obra- eta instalazio-aurrekontua, zergak eta tasak alde batera utzita, bider jardunaren arabera aplikagarri den irisgarritasun-koefizientea.

2.– Jardunaren arabera aplikagarri diren gehieneko koefizienteak:

– Irisgarritasun-plana: Koef. = 1.

– Eraikinetako irisgarritasuna (horizontala eta bertikala, igogailuak eta plataforma jasotzaileak, ateak, eskudelak, bainugela eta aldagela egokituak): Koef. = 1.

– Ibiak, arrapala ez-mekanikoak eta eskudelak sortzea: Koef. = 1.

– Hiri-izaereako igogailuak eta plataforma jasotzaileak: Koef. = 0,7.

– Mugikortasun urriko pertsonentzat aparkaleku-plazak erreserbatzea. Koef. = 0,5.

– Eraikinetako seinaleak eta ekipamendua egokitzea. Koef. = 0,5.

– Kaleak urbanizatzea (plataforma bakarreko kaleak, espaloiak zabaltzea, oinezkoen ibilbideak murrizteko igarobideak, eta zuhaitz-txorkoak ixtea): Koef. = 0,4.

3.– Eskatutako irisgarritasun-aurrekontua, erakunde onuradunak aurkeztutako eskabide guztien baturatik aterako dena, gehienez 300.000 eurokoa izango da.

8. artikulua.– Diruz lagundu daitekeen gehieneko irisgarritasun-aurrekontua.

Diruz lagundu daitekeen irisgarritasun-aurrekontua, gehienez, eskatutako irisgarritasun-aurrekontuaren % 50 izango da. Irisgarritasun-planen edo haien eguneratzeen kasuan, berriz, % 75 izango da. Halaber, degradatutako eremu deklaratuetan edo birgaitze integratukoetan kokatzen diren lanek, eskatutako irisgarritasun-aurrekontuaren % 60ko diru-laguntza jaso ahal izango dute gehienez.

9. artikulua.– Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Laguntza hauen emakida bateragarria izango da helburu berbera duten fondo publikoen edo pribatuen kargura jaso daitekeen beste edozein laguntzarekin. Hala ere, helburu berbererako jasotako laguntzen zenbateko osoa eta deialdi honetan emandako diru-laguntzaren kopurua batuta, azken kostu osoa baino handiagoa bada, gehiegizko kopuru hori kenduko zaio deialdi honen bidez emandako laguntzari.

Diru-laguntza hauek ez dira bateragarriak izango Etxebizitza Sailburuordetzak jardun bererako emandako beste laguntza batzuekin.

10. artikulua.– Ebazpena, errekurtsoak, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazteko modua eta publizitateko prozedura.

1.– Deialdi honetara aurkezten diren eskabideak prozedura bakar baten bidez izapidetuko dira, eta prozedura hori ebaztea, erakunde interesdunek planteatutako gai guztiak erabakita, Etxebizitzako sailburuordeari dagokio, betiere balorazio-epaimahaiaren proposamenez. Ebazpen hori aurtengo abendua amaitu baino lehen eman beharko da.

2.– Ebazpenean laguntza eman den edo ez zehaztuko da, hala gertatzen den kasuan, eta eman denean, zein erakundek jaso duen, zein den laguntza jaso duen proiektua eta zenbateko laguntza jaso duen zehaztuko dira. Eskabide ukatuen kasuan, ukatze horren zergatiak ere adierazi beharko dira.

3.– Aurreko paragrafoan aipatzen den ebazpenak ez dio amaierarik ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gorako errekurtsoa jarri diezaiokete interesdunek Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazpenaren egunaren biharamunetik kontatzen hasita, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearean azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

4.– Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie erakunde onuradunei. Dena den, jendeak horren berri izan dezan, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da erakunde onuradunen zerrenda, eman zaien diru-laguntza eta diruz lagundutako inbertsio-proiektua adierazita.

5.– Ebazpena erakunde interesdunei jakinarazteko epea inolako jakinarazpenik egin gabe bukatu bada, laguntza-eskabidea ezetsi dela ulertu beharko dute interesdunek, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44,1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

11. artikulua.– Erakunde onuradunaren betebeharrak eta diru-laguntzak emateko bestelako baldintzak.

Agindu honetan araututako diru-laguntzen erakunde onuradunek edozein kasutan ondoko obligazio hauek bete behar dituzte:

a) Esleitutako diru-laguntza onartzea. Diru-laguntza eman zaiela jakinarazten dien idazkia jaso eta hamabost eguneko epean erakunde onuradunek ukoa idatziz eta berariaz adierazten ez badute, diru-laguntza onartu egiten dutela ulertuko da.

b) Diru-laguntza bere xede zehatzerako erabiltzea, hau da, irisgarritasun-programa idazteko eta irisgarritasunaren hobekuntza-obrak egiteko.

c) Kontrol Ekonomiko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari beren eginkizunetan diharduten deialdi honen kontura jasotako diru-laguntzen inguruan eskatzen duten informazioa eman behar diete.

12. artikulua.– Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan izandako edozein baldintza aldatzen bada, eta, edozein kasutan, beste administrazio batzuen edo erakunde publiko edo pribatuen diru-laguntzak eskuratu baldin badira lehia bidez, edo, bestela, helburu bera aurrera eramateko bestelako diru-sarrera edo baliabideak lortu badira, laguntza ematea ekarri duen erabakia aldatu ahal izango da, betiere diru-laguntzaren arauak onuradun izateko ezartzen dituen gutxieneko baldintzak bete egiten baldin badira.

13. artikulua.– Emandako laguntzaren zenbatekoa aldatzea.

Inbertsioaren behin betiko benetako kostua diru-laguntza emateko oinarritzat hartutako aurrekontua baino gutxiago bada, diru-laguntzaren zenbatekoa bidezko proportzioan murriztuko da, eta gero diru-laguntzaren ehunekoa oinarri berriari aplikatuko zaio.

14. artikulua.– Proiektuak aldatzea.

1.– Hasiera batean aurreikusi eta ebazpen bidez onetsi ziren gastu edo jardueratan inongo aldaketarik egin nahi izanez gero, dena delako jarduera gauzatu aurretik eskatu beharko da aldaketa, eta Etxebizitzako sailburuordeari egokituko zaio eskaria berariaz onartu edo atzera botatzea.

2.– Aldaketak ezingo du inola ere jardueraren izaera aldatu.

3.– Salbuespenez, Etxebizitzako sailburuordeak onar dezake diruz lagundutako jarduna egiteko eta amaitzeko epea zabaltzea, baldin eta tartean erakunde onuradunaren borondatezkoak ez diren eta behar bezala justifikatuta dauden arrazoiak badira, eta ezarritako exekuzio-epea amaitu baino lehen idatziz eskatu bada. Nolanahi ere, zabaltze hori ezin izango da izan hasiera batean erabakitako epea baino handiagoa.

4.– Diru-laguntzaren erakunde onuradunak justifikazioan adierazten badu diru-laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak aldatu egin direla eta litekeena dela aldaketa horrek ebazpena bera ere aldaraztea, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 49.12 artikuluak xedatzen duenaren indarrez, eta aldaketok onartzeko aurrez behar den baimen-tramitea ez denez egin, diru-laguntza eman duen organoaren aukeran geratuko da aurkeztutako justifikazioa ontzat ematea, betiere, hori eginda beste inoren eskubideei kalte egiten ez bazaie.

5.– Diru-laguntza eman duen organoak egiaztapen-egintzan aldaketak onartzeak ez dakar berekin onuraduna bidezko zehapenetatik salbuetsita geratzea.

15. artikulua.– Ez-betetzea eta itzultze-prozedura.

Erakunde onuradunak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren diru-laguntza eskaeraren eta emakidaren berariazko xederako erabiltzen ez badu, diru-laguntzaren oinarria den ekintza egiten ez badu, diru-laguntza eskatuta lortu nahi ziren helburu zehatzetara aplikatu izana justifikatzen ez badu edo, oro har, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan, agindu honetan edo emakida-ebazpenean ezarritako betebeharrak betetzen ez baditu, emandako eta jasotako kopurua

itzuli beharko du legezko interes aplikagarriekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen berme eta itzultzeen erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan horretarako ezarritako prozedurari jarraiki.

16. artikulua.– Errekurtsoak.

Entitate interesdunek deialdi honen eta ondoriozko egintza guztien aurka egin ahal izango dute urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen dituen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezarritako epean eta moduan.

17. artikulua.– Aurrekontu-zuzkidura.

Adierazitako diru-laguntzak emateko 2.500.000 euro jarriko dira guztira. Horietatik, 125.000 euro 2014. urtekoak dira, 475.000 euro 2015. urtekoak, eta 1.900.000 euro 2016koak.

18. artikulua.– Diru-laguntzak jaso ditzaketen jardunak eta inbertsioak.

1.– Kapitulu honetan ezarritakoaren babespean diru-laguntza jaso dezakete entitate onuradunek, behar diren kontratuen bidez, irisgarritasun-planak prestatu eta idazteko edota haiek eguneratzeko egindako lanek (lehenengo artikuluan daude aipatuta). Era berean, idatzitako irisgarritasun-planetan jasotako obrak betearazteari eta egokitzapen-ekipamendua erosi eta instalatzeari buruzko jarduerak diruz laguntzeko modukotzat joko dira, lehenengo artikuluan adierazitako helburua badute.

Kasu guztietan, diru-laguntza jaso dezaketen jarduketek 2014ko urtarriletik aurrera hasi beharko dute, eta 2015eko abenduaren 31ra arteko gehieneko epea dago inbertsioak gauzatzeko, planen kasuan, eta 2016ko abenduaren 31 artekoa obren kasuan.

Jardunak bukatzeko epean atzerapenik izanez gero, epea zabaltzeko eskatu beharko da inbertsioak gauzatzeko gehieneko epea amaitu baino lehen. Eskaeran, gainera, atzerapena eragin duten arrazoiak justifikatu beharko dira, eta litekeena da aldaketa horrek diru-laguntza ematea onartu zuen ebazpenaren aldaketa eragitea.

2.– Diru-laguntzaren xede diren irisgarritasun-planekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da, gutxienez:

a) Egokitu beharreko komunikazioaren, garraioaren, eraikinaren eta kanpoko espazioen inbentarioa.

b) Jardunen lehentasun-ordena.

c) Programa ekonomikoa eta finantzarioa, egokitzapenak egitera zuzendutako aurreikuspen ekonomikoak zehaztuta.

d) Egokitzapenak egiteko egutegia.

19. artikulua.– Dokumentazioa.

1.– Eskaera kasuan kasuko udaleko alkateak izenpetu beharko du, edo, bestela, erakundearen legezko ordezkariak, betiere agindu honen eranskinean ageri den eskabide-ereduari jarraituz.

Jardun bakoitza eskaera baten bidez aurkeztu beharko da, modu indibidualean.

2.– Eskaerarekin batera, eta horrela dagokionean, honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

2.1.– Gida-plan eta/edo irisgarritasun-planetarako:

a) Diru-laguntzaren bidez finantzatu nahi diren jardunek eta/edo inbertsioek eragindako gastuen aurrekontu banakatua.

2.2.– Hiri-ingurunean eta erakinetan irisgarritasuna bermatzeko hobekuntza-obretarako eta egokitzapen-ekipamendua eskuratu eta instalatzeko obretarako –betiere jadanik idatzitako irisgarritasun-planetan bilduta badaude–:

a) Diru-laguntzaren bidez finantzatu nahi diren jardunek eta/edo inbertsioek eragindako gastuen aurrekontu banakatua. Justifikatu beharko da, halaber, nola aplikatu diren irisgarritasun-aurrekontua kalkulatzeko koefizienteak.

b) Egin beharreko jardunen deskribapen xehatua, 1/1000 gutxieneko eskalan egin beharreko jardunaren hiri-ingurunearen egoera-planoa, 1/1000 gutxieneko eskalan egin beharreko planta, aurretiko bista eta sekzioen plano deskribatzaileak eta jardun-arloaren egungo egoeraren argazki deskribatzaileak.

c) Teknikari eskudunak emandako ziurtagiria, non zehazten baita aurreikusiriko jardunak egokitzen direla irisgarritasunaren sustapenaren arloan indarrean dagoen araudiak eskaturiko eskakizun eta irizpideetara.

d) Diru-laguntzaren eskaeraren xede den obra biltzen duen irisgarritasun-planaren fotokopia eta irisgarritasun-planaren kopia formatu digitalean.

e) Argazki-dokumentazioa, paperean eta formatu digitalean (jpg formatuan), egin beharreko obrari buruzkoa eta diruz lagunduko den jardunaren xede den inguruneari buruzkoa.

f) Horrela dagokionean, eremu degradatuaren deklarazioa, edo birgaikuntza integraleko eremuarena.

g) Xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuen kasuan, lehenago aipatutako dokumentazioaz gain, honako hauek aurkeztu beharko dira:

– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean beteta daudela adierazten duen ziurtagiria.

– Elkarteen kasuan, onura publikoko aitortzari buruzko ziurtagiria aurkeztu beharko dute, Onura publikoko elkarteei eta beren babeslaritzari buruzko erregelamendua onartzen duen uztailaren 29ko 146/2008 Dekretuan ezarritakoa jarraiki, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistroan inskribatuta daudela dioen ziurtagiria; fundazioen kasuan, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuta daudela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz. Elkarteek nahiz fundazioek justifikatu beharko dute zein den euren xede soziala.

– Erakundeari bere xedeak garatze aldera eraikina erabiltzeko ahalmena ematen dion tituluaren fotokopia.

h) Eraikinetarako, Autonomia Erkidegoaren 2014ko maiatzaren 20ko Dekretua eta beraren laugarren xedapen gehigarria bete beharko dira (diru-laguntza publikoak jasotzeko EIT, Eraikinen Ikuskapen Teknikoa, egiteko beharrari buruzkoa). Egituraren eta eraikuntzaren aldetik egokituta

ez dauden eraikinek ezin izango dute diru-laguntza jaso, EITn eskatzen edo gomendatzen diren baldintza horiek lortzeko obrak jarduketaren barruan sartzen ez badituzte.

20. artikulua.– Diru-laguntzak esleitzeko prozedura eta irizpideak.

1.– Oro har, agindu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten proiektu guztiak diruz laguntzeko modukotzat joko dira.

2.– Epaimahaiak aztertu egingo ditu aurkeztu diren eskaerak, jardunak agindu honetako 1. artikuluan finkaturiko xedera egokitzen diren ala ez zehazteko, eta aginduaren 7.2 artikuluan bildutako koefizienteak zuzen aplikatu diren egiaztatzeko.

21. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa.

Kasu bakoitzean eman beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa honela zehaztuko da: eskatutako irisgarritasun-aurrekontua, 7. artikuluan ezarritakoa aplikatuz kalkulatua, bider 0,75 –planen kasuan– eta bider 0,5 –obren kasuan.

Salbuespen gisa, degradatutako eremu deklaratuetan edo birgaitze integratukoetan kokatzen diren lanen kasuan eman beharreko diru-laguntzaren kopuru indibiduala zehazteko, eskatutako irisgarritasun-aurrekontua, 7. artikuluan ezarritakoa aplikatuz kalkulatua, bider 0,6 egingo da.

Horrela kalkulatutako zenbatekoen batuketa Agindu honetan emandako aurrekontu-zuzkidura baino handiagoa bada, laguntzak honako lehentasun-hurrenkeraren arabera emango dira:

1.– Irisgarritasun-planei buruzko eskabideei emango zaie laguntza lehenengo.

2.– Bigarren, hobekuntza-obrei buruzko eskabideei emango zaie, jarduketak jarraian zehazten diren lehentasunen arabera sailkatuta, dagoen saldoa amaitu arte.

2.a.– Laguntza jasoko duten lehenengo obrak hiri-izaerako igogailuak eta plataforma jasotzaileak instalatzeari buruzkoak izango dira.

2.b.– Bigarren lekuan laguntza jasoko duten obrak eraikinen irisgarritasunerako aurreikusitako jarduketei buruzkoak eskabideak izango dira.

2.c.– Laguntza jasotzen hirugarrenak pasabideak, arrapala ez-mekanikoak eta eskudelak jartzeko jarduerei buruzko eskabideak izango dira.

2.d.– Laugarren lekuan, mugigarritasun urrituko pertsonentzat aparkaleku-plazak erreserbatzeko eta eraikinetan seinaleak eta ekipamendua egokitzeko aurreikusitako jarduketei buruzko eskabideek jasoko dute laguntza.

2.e.– Bosgarren, kaleak urbanizatzeko aurreikusitako jarduketei buruzko obra-eskaerei emango zaie.

Adierazitako lehentasun-hurrenkera jarraituta, dagoen zuzkiduraren zenbatekoa nahikoa ez bada adierazitako ataletako batean aurkeztutako eskabide guztiei erantzuteko, aurrekontu-kopurura agortzen den azken atal horretan jarduketei laguntza esleitzen jarraituko da, lehentasun-hurrenkera honen arabera: birgaikuntza integratuko eremuetan edo eremu degradatuetan dauden jarduketei esleituko zaie lehenengo, udalerrian dagoen langabezia-ehunekoaren arabera ordenatuta, handienetik txikienera.

Udalerriko langabezia-ehunekoa Lanbidek (Euskal Enplegu Zerbitzuak) udalerrika sexuaren eta adin-taldearen araberako langabeziari buruz eskabideak aurkezteko epea amaitzen den datarako argitara emandakoa izango da.

Kreditu orokorra kalkulatutako zenbatekoak baino handiagoa bada, emandako zenbatekoak hobetuko dira, kreditu orokorraren gehiegizko kopurua hainbanatuz, lortutako zenbatekoen proportzioan. Hainbanaketa horren ondorioz lortutako zenbatekoak ez du gainditu behar aurkeztutako irisgarritasun-aurrekontua.

22. artikulua.– Diru-laguntzaren ordainketa.

Kasuan-kasuan emandako diru-laguntza bi zatitan ordainduko da ondoko prozedura honi jarraiki:

1.– Irisgarritasun-planen eta irisgarritasuna hobetzeko obren kasuan, emandako laguntzaren zenbatekoaren % 5 aurreratutako ordainketa gisa pagatuko da, betiere diru-laguntzari berariaz uko egiten ez bazaio 11. artikuluko a) idatzi-zatian aipatzen den moduan, idatzi-zati horretan bertan zehazten den 15 eguneko epea igaro ondoren, eta aurretik erakunde onuradunak aurkeztu baditu gastua egiteko baimena justifikatzen duten agiriak. Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren arabera ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak ezartzen duen bermeen erregimenarekin bat etorriz bermatuko da kopuru hori.

2.– Irisgarritasun-planen kasuan, diru-laguntzaren gainerako zatia 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera ordainduko da, betiere lanak amaitu, eta honako dokumentazio hau Etxebizitza Zuzendaritzan aurkeztu ondoren:

a) Irisgarritasun-plana egiteko eta idazteko edo berau eguneratzeko erakunde onuradunak formalizatutako kontratuaren edo kontratuen kopia.

b) Egindako lanei lotutako gastu guztiei dagozkien fakturen eta ziurtagirien kopia.

c) Idatzitako planaren ale bat, formatu digitalean.

d) Erakunde onuradunaren ziurtagiria, non egiaztatuko baita, batetik, emandako diru-laguntzaren helburua eta xedea bete direla, eta, bestetik, zein kopuru erabili diren horretarako.

e) Helburu berbererako emandako bestelako diru-laguntzei buruz erakunde onuradunak egindako justifikazio-ziurtagiria.

f) Udal eta toki erakunde txikien kasuan, irisgarritasun-plana gauzatzeko jardunari buruzko fitxa, behar bezala beteta (eredua eranskinetan ageri da).

3.– Gainerakoa, hobekuntza-obren eta egokitzapen-ekipamenduaren erosketaren eta instalazioaren kasuan, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera ordainduko da, dagozkion egiaztagiriak aurkeztutakoan. Diru-laguntzaren kopuru osoaren % 10 ordaindu gabe gordeko da, obra amaitu arte. Lanak amaituta, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da Etxebizitza Zuzendaritzan:

a) Egindako jardunei buruzko ziurtagirien eta fakturen kopiak, behar bezala bideraturikoak. Azken ziurtagiriarekin batera, obra-amaierako ziurtagiria aurkeztu beharko da, dagozkion fakturak barne dituela.

b) Argazki-dokumentazioa, paperean eta formatu digitalean (jpg formatuan), egindako obrari buruzkoa eta diruz lagundutako jardunaren xede den inguruneari buruzkoa.

c) Irisgarritasun-obren eta egokitzeko ekipamenduaren erosketaren eta instalazioaren jarraipen-fitxa (eranskin gisa ageri da eredua), behar bezala beteta obren amaierako datuekin.

d) Teknikari eskudun batek egindako ziurtagiria, non egiaztatzen den obra nahiz egokitzeko ekipamenduaren eskuratze eta instalazioa bat datozela Irisgarritasunari buruzko 20/1997 Legearekin, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuarekin, eta Eraikingintzaren Kode Teknikoarekin: DB-SUA.

e) Helburu berbererako emandako beste diru-laguntza batzuei buruzko justifikazio-ziurtagiria.

Diruz laguntzeko moduko obra beste obra handiago baten zati izanez gero, nahikoa izango da diruz laguntzeko moduko obrari dagokion amaierako ziurtagiri partzialarekin.

Udalaren berezko langileek egindako obrak baldin badira, egindako obraren ziurtagiria ere aurkeztu beharko da, udal teknikari eskudunak izenpetuta.

Erakunde onuradunaren obra sozietate baten edo foru- nahiz udal-erakunde baten bitartez gauzatzen bada, sozietate edo erakunde hori onartu egingo da titularraren ordezkari gisa, gastua justifikatzeko ziurtagirian edo fakturazioan.

Azken likidazioa egiteko eskatutako dokumentu guztiak aurkezteko azken eguna 2017ko urtarrilaren 31 izango da.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honetan aurreikusi ez den orori dagokionez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoa aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari, hilabeteko epean; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 30a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Inprimatu

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
Etxebizitza Sailburuordetza
Etxebizitza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES
Viceconsejería de *Vivienda*
Dirección de Vivienda

Eskabidea

IRISGARRITASUNA BERMATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

(*) nahitaezko eremuak

Eskatzailea *

◯ Titularra ◉ Ordezkaria

Datu pertsonalak

Titularra

Erakundearen izena *

Telefonoa

Identifikazio-dokumentua * Zenbakia * -

Zein lurralde/probintziatan daude erakunde eskatzailearen datu fiskalak *

Ordezkaria

Izena / Erakundearen izena *

Telefonoa

Lehen abizena

Bigarren abizena

Sexua ◯ Gizona ◯ Emakumea

Identifikazio-dokumentua * Zenbakia * -

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala *

◯ **Posta bidezkoa**

Helbidea * Zk. Sol. Letra

PK * Udalerria * Probintzia *

Herrialdea * ESPAINIA

◯ **Elektronikoa**

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza *

◯ Euskara ◯ Gaztelania

Abisuak jasotzeko datuak

Helbide elektroniko edo SMS bidezko doako abisuen sistema erabili dezakezu. Sistemak abisatu egingo dizu jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen zaizun bakoitzean.

Helbide elektroniko edo telefono-zenbaki bat baino gehiago emanez gero, bereiz itzazu puntu eta koma bidez [;].

Helbide elektronikoa: _____

SMSa: _____

Erantzukizunpeko adierazpenak

Bateragarritasun-adierazpenak

Erakunde eskatzailea(k):

☐ Ez da laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin administrazio publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.

☐ Administrazio publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza eskatu dio eta eman egin dio (atal honetako datuak "Diruz laguntzea eskatu den jardueraren datuak" eranskinean zehaztu beharko dituzu).

☐ Administrazio publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza eskatu dio, baina erantzunaren zain dago (atal honetako datuak "Diruz laguntzea eskatu den jardueraren datuak" eranskinean zehaztu beharko dituzu).

Inskripzio-adierazpena

Erakunde eskatzailea legez eratuta dago, eta dagokion erregistroan inskribatuta. Inskripzioaren datuak:

- Euskadiko _____ erregistroa.
- Data _____

Bestelako adierazpenak

Aitortzen dut:

- Erakunde eskatzailea(k):
  - Ez dauka diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiborik.
  - Ez dago diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duten lege-debekuen eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatiko[1] lege-debekuen eraginpean.
  - Egunean ditu indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, arauz zehaztu bezala[2].
  - Betetzen ditu indarreko legediak laguntza hauek jasotzeko ezarritako baldintzak.
- Benetakoak dira eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan jasotako datuak.

[1] Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak seigarren azken xedapenean dioenaren arabera.

[2] 1/1997 Dekretuaren arabera, deialdia kudeatzen duen organoak berariazko baimenik gabe egiaztatu ahal izango du erakunde eskatzaileak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Baimenak

Deialdi hau kudeatzen duen organoari baimena ematen diot dagokion administrazioan honako datu hauek egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko, baliabide elektronikoen bidez edo aukeran dauden baliabideen bidez:

☐ Nortasun-datuak

Aurretik entregatutako dokumentuak

Dokumentu hauek kontsultatzeko baimena ematen dut:

Dokumentuaren izena	Noiz entregatu zen	Zein erakundetan entregatu zen

+ Dokumentu berria gehitu

_____ (e)n _____ (e)an
(Tokia) (Data)

(Ordezkariaren sinadura)

Eskabidea osatzeko argibideak

Eskatzailea

Erakundeak beti ordezkari baten bidez aritzen dira, hortaz**:**

- *Eskatzailea* atalean, aukeratu ezazu *Ordezkaria*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete ezazu *Titularra* atala erakundearen datuekin eta *Ordezkaria* atala zure datuekin.
- Sina ezazu eskabidea.

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko, aukera hauek dituzu:

Posta bidezkoa: *Posta bidezkoa* atalean jarri duzun helbidera igorriko dira.

Elektronikoa: **Nire kudeaketak** guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira.
Han sartzeko, **onartutako ziurtagiri elektroniko** bat izan behar duzu.

Oharra: 10 eguneko epea duzu jakinarazpenera sartzeko; bestela, jakinarazpena errefusatutzat joko da, izapidea egintzat emango da eta prozedurak aurrera egingo du.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Inprimatu

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
Etxebizitza Sailburuordetza
Etxebizitza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES
Viceconsejería de *Vivienda*
Dirección de Vivienda

DIRUZ LAGUNTZEA ESKATU DEN JARDUERAREN DATUAK

Norentzat: Etxebizitza Zuzendaria
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Donostia-San Sebastián kalea, 1
01010 Vitoria-Gasteiz

Hiri ingurunean eta eraikinetan irisgarritasuna bermatzeko udalentzako eta toki erakunde txikientzako,eta erabilera publikoko erakundeentzako diru laguntza.

_____ zk. Agindua , _____ , _____ _____ zk. EHAAn argitaratua

Entitate eskatzailea _____

Jarduera mota

☐ Irisgarritasun plana ☐ Hobekuntza obrak

Eskatutako irisgarritasun aurrekontua

Jarduera: (Plana (eguneratzea) / Obra)	
Aurrekontua, zergak eta tasak kenduta (1)	
Irisgarritasun koefizientea (7.2 art.) (2)	
Eska daitekeen irisgarritasun aurrekontua (3) = (1) * (2)	

Irisgarritasun aurrekontua guztira (300.000 € eska daitezke gehienez)

Beste finantziazio iturriak

Beste laguntzak eskatu dituzu?	◯ Bai ◯ Ez	
Zein organismoari?	**Eskatutako zenbatekoa**	**Emandako zenbatekoa**
Guztira		

+ Lerro Berri Gehitu

Aurkeztu beharreko agiriak

Irisgarritasun planak:

☐ Finantzatzeko eskatuko den diru-laguntza jasoko duten inbertsioen edota jardunen gastuen aurrekontu xehatua.

Hobekuntza-obren kasuan, egokitzapen-ekipamenduaren erosketa eta instalazioa:

☐ Finantzatzeko eskatuko den diru-laguntza jasoko duten inbertsioen edota jardunen gastuen aurrekontu xehatua. Irisgarritasun aurrekontua kalkulatzeko koefiziente ezberdinak erabili direla justifikatuko da.

☐ Egin beharreko jardunen deskribapen xehatua, 1/1000 gutxieneko eskalan egin beharreko jardunaren hiri-ingurunearen egoera-planoa, 1/100 gutxieneko eskalan egin beharreko planta, aurretiko bista eta sekzioen plano deskribatzaileak eta jardun-arloaren egungo egoeraren argazki deskribatzaileak.

☐ Teknikari eskudunak emandako ziurtagiria irisgarritasunaren sustapenaren arloan indarrean dagoen araudiak eskaturiko eskakizun eta irizpideetarako aurreikusiriko jardunen egokitzapenari buruz.

☐ Diru-laguntzaren eskaeraren xede den obra biltzen duen irisgarritasun-planaren fotokopia eta irisgarritasun-planaren kopia formatu digitalean.

☐ Egin beharreko obraren eta diru-laguntzaren jardunaren xede den inguruneren argazki-dokumentazioa paperean eta formatu digitalean (jpg formatua).

☐ Dagokionean, Area Degradatuaren edo Birgaitze Integratuko Arearen Deklarazioa.

☐ Helburu sozialetarako erabilera publikoko erakunde pribatuen kasuan, Erakundea eraikina erabiltzera, Erakundearen helburuak garatzeko, baimentzen duen titulua.

☐ Elkarteek Herri-onura aitortzeko ziurtagiria aurkeztu behar dute uztailaren 29ko 146/2008 Dekretuaren arabera, zeinaren bitartez onartzen den Onura Publikoko Elkarteei eta beren Babesletzari buruzko Erregelamendua.

☐ Eraikinentzat, EAT (Eraikinaren Azterketa Teknikoa), laguntza publikoak jasotzeko betetzea nahitaezkoa delako

_____ (e)n _____ (e)an

Sinatuta:

Alkatea / entitatearen legezko ordezkaria

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Inprimatu

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
Etxebizitza Sailburuordetza
Etxebizitza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES
Viceconsejería de *Vivienda*
Dirección de Vivienda

DIRUZ LAGUNDU DEN IRISGARRITASUN JARDUERAREN FITXA

Hiri ingurunean eta eraikinetan irisgarritasuna bermatzeko udalentzako eta toki erakunde txikientzako, eta erabilera publikoko erakundeentzako diru laguntza

_____ zk. Agindua , _____ , _____ _____ zk. EHAAn argitaratua

Espedientea	Onuraduna	Lurralde Historikoa

Irisgarritasun jarduera			
Aurkeztutako aurrekontua, zerga eta tasarik gabe			
Esleipenaren aurrekontua, zerga eta tasarik gabe	**Esleipen data**	**Obraren hasiera data**	**Gauzatzeko epea**
Enpresa			
Gauzatutako aurrekontua, zerga eta tasarik gabe			

Beste finantziazio iturriak

Beste laguntzak eskatu dituzu?	◯ Bai ◯ Ez	
Zein organismoari?	**Eskatutako zenbatekoa**	**Emandako zenbatekoa**
Guztira		

+ Lerro Berri Gehitu

Aurkeztu beharreko agiriak

Irisgarritasun planak:

- ☐ Erakunde onuradunak irisgarritasun-plangintza egiteko eta idazteko nahiz eguneratzeko egindako kontratuaren edo kontratuen kopia.
- ☐ Lanak egiteak sortu dituen gastu guztien fakturen eta ziurtagirien kopia.
- ☐ Idatzitako planaren ale bat formatu digitalean.
- ☐ Entitate onuradunaren ziurtagiria; bertan, emandako diru-laguntzaren helburua eta xedea bete direla, eta horretarako erabilitako zenbatekoak egiaztatuko dituzte.
- ☐ Udalentzako eta toki erakunde txikientzako irisgarritasun-planaren jarraipen-fitxa behar bezala beteta.
- ☐ Helburu berbererako emandako bestelako diru-laguntzei buruz entitate onuradunak egindako ziurtagiria.

Hobekuntza-obren kasuan, egokitzapen-ekipamenduaren erosketa eta instalazioa:

- ☐ Egindako jarduketen ziurtagirien eta fakturen kopiak, behar bezala izapidetuta. Azken ziurtagiriak barnean hartu behar du obra-amaierako egiaztagiria, dagozkion fakturekin.
- ☐ Egin beharreko obraren eta diru-laguntzaren jardunaren xede den inguruneaen argazki-dokumentazioa paperean eta formatu digitalean (jpg formatua).
- ☐ Irisgarritasunerako obren jarduketaren fitxa, eta egokitzapen-ekipamenduaren erosketa eta instalazioarena, obra-amaierako datuekin behar bezala osatuta.
- ☐ Teknikari gaituaren ziurtagiria, ziurtatzen duena obrak betetzen duela 20/1997 Irisgarritasun Legeak, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak eta Eraikuntzaren Kode Teknikoak, DB-SUAk ezartzen dutena.
- ☐ Xede bererako jasotako bestelako diru-laguntzen ziurtagiria.

Sinatuta:

Alkatea / entitatearen legezko ordezkaria